



GURUTZ BIDEA

Bigarren eginaldiya



R. 2914
M-2. 878
R. 34.813

ATV
17.776

GURUTZ BIDEA

Maitasunezko ta Samintasunezko
Jesu-Kristoren pausoak

KALBARIOKO BIDEAN

(Apezpiku Jaunaren baimenarekin)

EGILLEARENA DA

S. O. (apaiza)

«Jesu-Kristorekin itz egiteko soseguz ziñatu.
Danua artzeko biotzetik esan: Nere Jesu-Kristo
Jauna, ta batek guzien izenean eskeñi.»



DONOSTIAN
J. BAROJA SEMEEN MOLDIZTEGIAN

1915

ADONIS 1111 1111

ADONIS 1111 1111

ADONIS 1111 1111

ADONIS 1111 1111

ADONIS 1111 1111

ADONIS 1111 1111

ADONIS 1111 1111

ADONIS 1111 1111

ADONIS 1111 1111



ADONIS 1111 1111

ADONIS 1111 1111



Nere Jesu-Kristo Jauna.



Nere Jesu-Kristo Jauna,
Jaungoiko ta Gizon egiazkoa,
nere Egillea, nere Eroslea, Zu
zeranagatik eta beste gauza
guziak baño geyago maitatzen
zaitudalako, damu det nere
biotz guzitik Zu iraiñdua, ta
artzen det asmo sendoa iñoiz
ez geyago pekaturik egiteko,
aitortzeko, ematen zadan pe-

nitenzia betetzeko, ta alde egi-
teko pekatuko bide guzietatik.
Ezkeintzen dizkitzut Jauna
nere bizitza, neke, ta naiga-
beak, nere pekatu guzien or-
dañerako, ta sinismen osoa
daukat zure ondasun ta erru-
ki azkengabea barkatuko
dizkidatzudala zure Odol, Pa-
sio ta Eriotz ordaingabekoen-
gatik, eta emango dirazula
zintzotzeko asmo sendoa ta
nere bizitza guzian zure bel-
durrean irauteko laguntza.

Ala izan dedilia.



SARRERAKO OTOITZA

¡O Jesus on ta Al-guziduna!
Zure aurrean auspezturik,
biotz bero ta irazekiarekin es-
katzen dizut, arren, ezarri de-
zazula nere animan sinisme-

nezko ta maitasunezko gogo bizia, gaiztakeri guzien damu egiazkoa, ta geyago pekaturik ez egiteko asmo sendoa.

Agertu nai nuke bai-ta ere zugarako leyaltasuna, jarraitutzeko Zuk Ostiral Santu egunean eramán zinduan pauso garratzetan. Eman zaidazu bada, Jauna, kemen irazekibat irabazi ditzadan Erromako Aita Deunak emanik dauzkan barkamen ugariak. Barkamen oso oyetako bat izan dedilla nere animarentzat, eta ondorengo guziak jartzen ditut.

Ama biotz bera-a orren eskue-
tan, zabaldu ditzan purgato-
rion arkitzen diran animarik
beartsuenetan.

Ala izan dedilla.





Lenengo egon lekua.

ERIOZAKO EPAI GARRATZA

JESUSI EMAN ZIOTEN LEKUA

Oroitu zaitez, kristaua, Jesus apalak etzuala beste errurik gure pekatuak bere sorbaldaren gañean artzea baño.

ERREGUA

¡O nere Jesus laztana! Entzunik Pilatos galgarriak eman zizun eriozako epai samiña, ta jakiñik nereza zala erru gu-

zia, jala... ere zaude ixil ixilik!
Aitortzen det biotzetik, Jauna,
zure laguntzarik gabe txit ar-
gala ta ezereza naizela. Eman
zaidazu bada zuganako mai-
tasun irazekia, ta indarra erre-
zago eraman ditzadan neke,
samintasun, ta naigabe gu-
ziak, zure gurutz bideaz oroi-
turik.


Ala izan dedilla.

Egon leku bakoitzean esan: *Jauna pe-
katariaz erruki zaitez.*

Eta erantzun: *Jesusen gurutzeko erio-
tza gurezat izan dedilla betiko bizitza.*

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria

Baldin guzia irakurteko astirik ez
bada, askida irakurtzea *Erregurano*,
Erromako Aita Deunak emanik dauzkan
barkamenak iristeko.



Bigarren egon lekua.

JESU-KRISTORI SORBALDAN GURUTZEA
JARRI ZIOTEN LEKUA

Oroitu zaitez, kristaua, bigarren egon leku onetan Jesus apalak gurutze astunura sorbal gañean arturik zugatik daramalla.

ERREGUA

¡O Zeruko bildots maitagarria! ¿Nora zuaz gurutze astunori sorbaldaren gañean dezu-la? ¿Zerk zarabilkizu aiñ men-

deratua ta makurtua? Eta Zu
era orretan ikusirik ¿nola ez
du nere begiak negarrik? Sa-
murtu ezazu, Jauna, nere
biotz gogortua, menderatu-ere
nere arrokeriak, eta eman zai-
dazu zure pauso samañetan
jarraitzeko laguntza.

Ala izan dedilla.



Irugarren egon lekua.

JESUS, GURUTZEAREKIN,
LENENGO ALDIZ ERORI ZAN LEKUA


Ekarri gogora, pekataria, irugarren leku onetan zer naigabetua arkituko zan Jesus ona, indarririk gabe amildu zanean lenengo aldiz gurutzearen azpira.

ERREGUA

Zeru ta lurrak indartzen dituzun Jesus: ¡Uzkaldurik arkitzen zera lurrean ezarria! ¡O

Jesusen apaltasuna! ¿Zu gurutzearen azpian gure pekatuak-gatik? ¿Zer samintasun ikaragarria! Egizu arren, Jaina, ezaguturik nere erru ta utsegite guziak, jeiki dedilla neregan zukanako maitasun bizia ta bide zuzenean jarraitzeko gogoia.

Ala izan dedilla.



Laugarren egon lekua.

JESUSEK

BERE AMA SAMINTASUNEZ BETERIK
ARKITU ZUAN LEKUA

Oroitu zaitetz emen, kristaua, zer gertatuko zan Ama Semeen artean aldaparen asieran alkar arkitu zutenean.

ERREGUA

¡O Ama errukitsuena! ¿Nola arkitu zenduan negarrez billa zebiltzan zure errayetako

Seme laztana? Burua arantzaz josia, arpegi eder ura tsistuz eta autzez zikindua, gorputza zauriz betea, ¿nora begiratuko diozu, Ama, baldin zauriz beterik arkitzen bada? Biurtu itzazu nigan zure begi errukizko oyek eta egizu izan nardilla zure seme leyala. Bai, Ama, arren bai.

Ala izan dedilla. Aita, etc.



Bostgarren egon lekua.

SIMON ZIRENEOTARRA, JESUSI
GURUTZEA ERAMATEN LAGUNTZEKO
EMAN ZIOTEN LEKUA

Gogora ekarri, kristaua, nola Judu
biotz gogor ayek Jesusi laguntzeko, Si-
mon Zireneotarra eman zioten, bidean
ill-otzik gelditzeko beldurrez.

ERREGUA

¡O Jesus maitea! ¡Nork adie-
razi bear bezela, gizon ayen
amorru garratza! Baña, ona

emen, nun agertzen dan zuganako billaukeririk aundiena. Gauza urria zala uste zuten orduarte gizonagatik egiñ zenduana, ta nai zaitue josi iltzè gogorraz zurezko gurutzean, ta eran erazi *Kaliz* garratz ura, azkenengo kondarreraño.

Eman zaidazu bada, Jauna, oraindañoko utsegite guzien damua, ta izan nai det benaz gurutze orren seme egiazkoa.

Ala izan dedilla. Aita, etc.



Seigarren egon lekua.

BERONIKA DOATSUAK

JESUSI ARPEGIA GARBITU ZION LEKUA

Oroitu zaitez, kristaua, Beronikaren sendotasunaz, Judu odol zale ayen artetik arduragabe sartu ta Jesusi arpegia garbitu zionean.

ERREGUA

¡O Jesus biotz bera-a! Arkitu zenduan noizbait errukia, ta saritzat eman ziñon emakume

sendo arri zure iduria iru tolesturetako zapian. Sendatu ezazu, Jauna, nere anima emakume arrena bezela, ta eman zayozu indarra mundutarrenganako lotsa ta beldurra menderatzeko, ta Zure aginte Doatsuak ondo betetzeko.

Itsatsi ezazu nere biotzean Zure iduria, eman ere bai gauza txar guzietarako gorrotoa ta onetarako gogoa.

Ala izan dedilla. Aila, etc.



Zazpigarren egon lekua.

JESUS, BIGARREN ALDIAN

ERORI ZAN LEKUA

Oroitu emen, kristaua, zenbat bider
jausi zeran pekatuan, ta zein gurutze
astuna izan zan Jesusentzat.

ERREGUA

¿Noiz ezagutuko ote det,
Jauna, bear bezela nere erruen
itxusitasuna? Ikusirik Jesus,
bigarren aldian amiltzen dala

gurutzearen azpira : ¿noiz arte egon bear det itxumen ikaragarri onetan? ¡O pekatua! ¿Nola izan bear dezu geyago lekurik nere animan? Ez, ez: alferrik jeikiko dira Infernuko etsai guziak, bada, ni beti Jesusekin biziko naiz, eta ilko naiz ere Jesusekin.

Ala izan dedilla. Aita etc.



Zortzigarren egon lekua.

JESUSEK, JERUSALENGO ALABAI
ITZ EGIN ZIEN LEKUA

Zer gertaera ederra, kristaua, ikasi nai badezu emakume errukitsu ayei Jesussek esan ziozkaten itz samurretan. *Jerusalengo alabak: nigatik negarrik ez egiñ, ez bada zerengatik eta zuen umeak-gatik, bada ayen gañera gaitz ikaragarriak etorri bear dute.*

ERREGUA

¡O Jesus estitzua! Badaukat neregan zeri negar egiñ. Nere pekatuak jarri zaituzte Zu era

orretan. ¡O Jesus! Baldin Aita Betikoak agertu badu zugan ainbesterañoko asarrea nere pegatuak Zure gain artu zindualako, ¿zer gordeko ote du neretzat egun ikaragarri arretan? Baldiñ Aita Zerukoak aiñ su bizia egiten badu egur ezearekin, ¿nola ez du egingo egur igarrarekin? Esango balu bezela: baldiñ bere Aitak artzen badu aiñ gogorkiro bere Seme Doatsua, ¿nola ez du artuko pekatari biotz gogorrekoa? Eman zaidazu, Jesus, nere anima negarrez garbitzeko eskerra ta beti zuri jarraitzeko asmo sendoa.

Ala izan dedilla. Aita, etc.



Bederatzigarren egon lekua.

JESUS, IRUGARREN ALDIAN

ERORI ZAN LEKUA

Begira emen, kristaua, Juduen gogortasunari; Jesusi indarrak urriturik erortzen-da irugarren aldian, ta arkitu zuan errukia izan zan, ostikoka lurretik jeiki erasotzea.

ERREGUA

Aita Zerukoa: ¿noiz arte utzi bear dezu, Zure Seme bakar eta laztana, gizon gogor

ayen eskuetan? ¿Noiz bigundu-
duko-da Zure biotza zere Se-
meaganako, jakiñik gizonaga-
tik daramala gurutze astun
ori?

Nere animari diozun maita-
sunagatik, eman zaidazu nere
erruen itxusitazuna ezagutze-
ko argia, ez ditzadan galdu,
Jesusek eskeintzen dizkitzun
irabazi neurrigabeak.

Ala izan dedilla. Aita, etc.



Amargarren egon lekua.

JESUSI SOÑEKOAK, KENDU ZIOTEN LEKUA

Oroitu zaitetz, kristaua, egon leku onetan, nola Judu billau ayek Jesus biotz samurrekoari bere soñekoak kendu, larru gorrian jarri, ta zauri gogorrak berritu ziozkaten.

ERREGUA

Zeru urdiñak izarrez ta lurreko zelai zabalak lore ederez jantzi zinduan Jauna.

¡Larru gorrian arkitzen zera mundu guziaren aurrean! ¡O kristauaren billautasuna! ¿Zure biotza samurtuko ez da, oroituaz zeru lurren egillea ta zure Jaun ta Jabea arkitzen dala gizonaren antzik gabe, ta Judu odolzale ayek farra ta izeka egiten diotela? ¿Samurtuko ez da zure biotza gogora ekarriaz, Jesus biotz bera-ak artu zituala bere gain lotsa oek guziak zu bide zuzenean jarri ta Zerura eramateagatik? Bai, Jesus, bai, aitortzen det nere ezker gabekeria, ta arren barkanazazu.

Ala izan dedilla. Aita etc.



Amaikagarren egon lekua.

JESUS GURUTZEAN EZARRI

TA JOSI ZUTEN LEKUA

Begira emen, pekataria, Jesus gurutze orretan ezarria, esku ta oñak iltze gogorrez josiak, baña ¡oraindik bizirik!


ERREGUA

¡O Jesus ondasun guzien gañekoa! ¡Zer naigabe ta samintasunak daramaizkitzun gurutze orretan gizonai die-

zun maitasuna-gatik! Eman zaidazu, Jauna, ezaguera nere biotza lurreko atsegiñetan bete ez dedin, ez bada gurutzea izan bedi neretzat poz eta atsegiñik aundiena.

Bai Jesus, bai, eman zaidazu mundu ontako arantzak eta gurutzea Zure pozean eramateko laguntza.

Ala izan dedilla. Aita, etc.



Amabigarren egon lekua.

JESUS GURUTZEAN ILTZAN LEKUA

Pekataria: il-da Jesus gu piztutzeko, ta Zeruko ateak irikitzeko. ¡Eta zer lotsagarria izan zan Jesusi eman zioten erio-tza mundu guziaren aurren ta bi lapurren erdian!

ERREGUA

¡Aita Betikua! ¡Zure Seme bakarra il-da, ta il-da guri betiko bizitza emateagatik! ¡Zen-

bat lotsa, naigabe ta samintasun eraman zituan guri ondasun ugariak emateagatik ¡Asko da, Jauna, zure aserreta gogortasuna! Egizu oraiñ, Jesusen odola izan dedilla guretzat betiko bizitza.

Ala izan dedilla. Aila, etc.



Amairugarren egon lekua.

JESUSEN GORPUTZ ILLA
BERE AMARI MAGALEAN IPIÑI ZIOTEN
LEKUA

Kristaua, zure biotzak emen dauka non samurtu ikusirik Siongo alabatsoa bere Seme laztana altzoan duela itzik gabe ta zauriz illa.

ERREGUA

¡Amarik errukitsuena! ¡Nork eman leikion atsegin piskatso

bat zure biotzari! ;Nork lagun-
du bear bezela negarrezko ba-
kardade orretan! Artu nazazu
Ama zure semetzat, eta lagun
zadazu bizitza garbi batean
bizi nadin er-beste onetan ar-
kitzen naizen bitartean, ta
gero betiko zerua iritxi deza-
dan.

Ala izan dedilla.

Ama errukitso onek igaro zituan iru
naigaberik aundienen oroipenean, iru
Agur Maria.



Amalaugarren egon lekua.

JESUS OBIAN SARTU ZUTEN LEKUA

Oroitu zaitez, kristaua, nola Ama nair-gabez betetakoari Jose ta Nikomedesek bere altzotik Jesus kendu zioten, il-obian sartzeko.

ERREGUA

¡O Amarik errukigarriena!
¡Zer bakarrik gelditu zeran!
¿Zure Seme laztana non dezu?
¿Nork beteko du oraiñ zure

biotzeko utz aldia? Orain ar-
tean naiz illik iduki, ikusi dezu
zure Seme Doatsua, baña, arri
otz aztun batek estali duan
ezkero, zure biotzak inongo
atsegiñik ez du. ¡O nere Ama
maitea! Gaurtik aurrera izan
nai det zure semerik leyalena;
bizi nai det nere pekatuaga-
tik negar samiñak egiñaz zure
Semearen zauriak berritu di-
tudalako, ta zure negar mal-
koak ugaritu ditudalako.

Arren, Ama, izan esazu ni-
zaz errukia.

Ala izan dedilla. Aita, etc.



AZKENENGO OTOITZA



¡O Jauna! Zure Pasio samina-
ñaren agiriak utzi ziguzuna,
Jose ta Nikomedesek Zure
gorputz Doatsua gurutzetik
jeitsi ta izara garbi batean bil-
du zutenean; erregutzen dizut,
Jauna, Zure eriotz ta obia ga-
tik, eraman ditzazula gure ani-
mak betiko Zerura.

Ala izan dedilla. Aita, etc.





Bost zauri Doatsuen eskeña.

OTOITZA

¡O Jauna!, biotz osoarekin gurtutzen ditut Zure bost zauriak. Sinisten det iturri miragarri batzuek dirala, ta zauri aben bidez ondasun ugariak iritsiko ditudala.

A la izan dedilla.

EZKERREKO OÑEKO ZAURIARI

¡O Jesusen zauri atsegiñez betea! Biotz irazekiarekin gurtutzen zaitut, eta eskatzen dizut, Jauna, nere pauso ta ibillera gaizto guzien barkamena.

Aita gurea, etc.

ESKUBIKO OÑEKO ZAURIARI

¡O Jesusen zauri atsegiñez be-
tea! Biotz irazekiarekin gurtutzen
zaitut, eta eskatzen dizut, Jauna,
nere belarri ta eskuakin egiñ dizki-
tzudan utsegite guzien barkamena.

Aita gurea, etc.

EZKERREKO ESKUKO ZAURIARI

¡O Jesusen zauri atsegiñez be-
tea! Biotz irazekiarekin gurtutzen
zaitut, eta eskatzen dizut, Jauna,
nere begi ta mingañarekin egin diz-
kitzudan erru guzien barkamena.

Aita gurea, etc.

ESKUBIKO ESKUKO ZAURIARI

¡O Jesusen zauri atsegiñez be-
tea! Biotz irazekiarekin gurtutzen
zaitut, eta eskatzen dizut, Jauna,

nere adimen ta gogo guziarekin
egin dizkitzudan txarkeri guzien
barkamena.

Aita gurea, etc.

SAIATSEKO ZAURIARI

¡O Jesusen zauri atsegiñez be-
tea! Biotz irazekiarekin gurtutzen
zaitut, eta eskatzen dizut, Jauna,
zure biotz naigabetua burni zo-
rrotzez zulatu zutenean guregana-
ko agertu zenduan maitasun neu-
rri gabea. Aitortzen det biotz gu-
zitik, Jauna, nayago detala ill, Zure
zauriak berritu baño.

Aita gurea, etc.

OTOITZA

Nere Jaun ta Jabe Jesus: Zure
bost zauri ta beste eziñ konta-ala

ondasun neurri gabeak, gurutzean
zinzilik zeundela eman ziskigutzun
ezkero, eskatzen dizut, Zure Odol
ordaingabekoaren izenean, arren,
gure biotz otza berotu dedilla Zure
zaurietan emen lurrean, ta gero
Zeruan Zure ondoan.

Ala izan dedilla.



